

Albisteak

Eusko Ikaskuntzako azken berriak

Euskararen Normalkuntzarako Legea aztergai HAEE eta Eusko Ikaskuntzaren eskutik

Jada hamazazpi urte igaro dira Eusko Legebiltzarrak Euskararen Normalkuntzarako Legea onartu zuenetik. Garai egokia hausnarketa sakon bat eta balorazio bat egiteko, eta baita etorkizunean jorratu beharreko bidea markatzeko ere.

Hori dela-eta, uztailaren 1 eta 2an, aditu andana bat entzuteko parada izan genuen Donostiako Miramar jauregian burututako mintegian, eta zalantzak argitzeko nahiz iritzi desberdinak adierazteko txoko aproposa izan zen.

Guztira lau panel landu ziren: Hizkuntza Eskubideen Babes Jurisdikzionala, Administrazioa, Hezkuntza eta Komunikabideak. Amaierako hitzaldia, Europar Batasuneko Herriaren Defendatzailearen bulegoko arduradunak eman zuen, Peter Dyrberg-ek.

Hitzaldi horiek guztiak ELERIA aldizkariraren monografiko batean argitaratuko dira aurki, eta mintegiotako ondorioak Euskonews astekari elektronikoan entzuteko aukera izango dugu.

Eusko Ikaskuntzak 80 urte

1918ko abenduaren 22ko egun batez sortu zen Eusko Ikaskuntza, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako Aldundien eskutik, euskal kultura maite dutenen bilgune iraunkorra izateko. Erakunde zientifiko hau, euskal kulturaren ekarpenaren funtsezko oinarria izan da, bertan hasi zirelarik mamitzen Euskal Unibertsitatea, Autonomia Estatutua, Udako Ikastaroak, Euskaltzaindia...

Ospetsu asko izan dira etxe honen baitan lanean, hala nola: Julian Elorza, Arturo Campion, Angel Apraiz, Jose Migel Barandiaran, Agustin Zumalabe, eta abar luze bat.

Abian da Europa-Euskal Herria taldea

Eusko Ikaskuntzaren baitan, begiak europar errealitatean ipini dituen talde berri bat sortu zen 1998an: "Europa-Euskal Herria", eta, izenak berak argi dioen bezala, Europa handia eta Euskal Herri txikia uztartzeko xedea dauka.

Funtsean, gai horretan interesatuta dagoen edonork bere iritzia emateko foro bat da, eta bere jarduerak zentzu horretan joango dira beti ere. Horrela, bere lehenengo saioa "Europako Erregionalismo eta Integrazioari buruzko Jardunaldiak" izan ziren, 1998ko abenduaren 14 eta 15ean Donostiako Miramar jauregian antolatutakoak. Joxerramon Bengoetxea irakaslea dugu bertako koordinatzaile nagusia.

Europako Erregionalismo eta Integrazioari buruzko Jardunaldiak

Abenduaren 14 eta 15ean, "Europako Erregionalismo eta Integrazioari buruzko Jardunaldiak" izenburupeko hitzaldi interesgarri batzuk izan ziren Donostian, Eusko Ikaskuntzako Zuzenbide Sailaren eskutik. Sortu berria den *Europa-Euskal Herria* taldeak antolatu zuen, Joxerramon Bengoetxea izanik koordinatzaile, eta Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntzarekin.

Jakintsu ugari bildu ziren bertan, Europako errealitate honek dituen alderdi desberdinak azaltzeko, bai Euskal Herrikoak eta baita atzerrikoak ere, hala nola J. Renyer, F. Pérez-Tremps, M. Zelaia, J.L. de Castro, J. Astola, J.M. Muñoz, J.A. Corriente, I. Bullain, J. Martín y Pérez de Nanclares, X. Arzoz, H. Labayle, J. Diego, C. Fdez. de Casadevante, F. Rodríguez eta X. Iriondo.

Elkarreraginezko Urrutiko Masterrak

Klaseetara joateko denborarik ez dutenentzat, eta ikasteko ordutegia beren erara antolatu nahi dutenei begira, Eusko Ikaskuntzak hiru Elkarreraginezko Urrutiko Master aurkezten ditu ikasturte berrirako: Ingurugirokoa (MIDA), Nazioarteko Merkataritzakoa (MICI), eta Europar Batasuneko Zuzenbide eta Ekonomiari buruzkoa (MIDEC).

Ikasleek etxean jasoko dute materialea, posta elektronikoz nahiz arruntaz, eta Master bakoitzak orri bat izango du Interneten, informazio orokorra, link interesgarriak, irakasleei zuzenduriko galderak eta hauen erantzunak, eta abar bilduko dituenak.

Izena emateko epea, irailaren 30era arte dago zabalik. Argibide gehiagorako, Eusko Ikaskuntzako bulegoetara deitu (Telefonoa: 943 31 08 55), edo posta elektronikoz baliatu (MIDA@sk.ehu.es, MICI@sk.ehu.es, MIDEC@sk.ehu.es). Interneten bertan ere informazioa ematen da (www.suse00.su.ehu.es).

Justizia Saitetik zer berri?

Sinatuta dago Justizia Administrazioa Euskalduntzeko Hitzarmen Markoa

Juan Jose Ibarretxe lehendakariak eta Aginte Judizialaren Kontseilu Nagusiko presidente den Javier Delgadok, EAEko Justizia Administrazioan euskararen erabilera normalizatzeko hitzarmena sinatu zuten Gasteizen 1999ko otsailaren 18an.

Hitzarmen honen bitartez lortu diren asmoen artean, karrera judizialeko kideek eta bake epaileek euskaraz ikastea, ekintza judizialean euskararen erabilera bultzatzea eta Justizia Administrazioaren harremanetan euskara juridikoa sustatzea leudeke. Hau guztia ahalbidetzeko, langile hauei zuzenduriko ikastaroak ere aurreikusi dira, 28 milioi pezeta bideratuko direlarik urtero helburu hauek errealitate bilaka daitezzen.

EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak ezezkoa eman dio epaitegi euskaldunen zirkuitua sortzeari

Uztailaren 21ean, EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak ezezkoa eman zion aurkeztu zitzaion proposamenari, hizkuntzaren irizpidea ezin dela kontuan hartu auziak barruti bakoitzeko pertsonabakarreko organuen arteko banaketa arautzeko orduan. Halaber, itzulpen sistema erabiltzearen alde agertu da, eta hizkuntzaren arazoak sor ditzakeen atzerapenak gutxiagotzeko beharrezko diren neurriak hartzera gonbidatzen ditu instantziak.

Justiziaren euskalduntzearen inguruko arazoak aztertzeko sortutako Justizia Administrazioako Hizkuntzaren Normalkuntzarako Erakundearteko Batzordeak, kasuen banaketarako hizkuntzaren irizpidea kontuan har zedila proposatu zuen, euskaraz dakiten epaile bi edo gehiago dauden jurisdikzioetan.

EAEko epaileen heren batek euskara ikasteko gogoia adierazi du

Euskal Autonomia Erkidegoan lanean ari diren epaileetatik hirurogei eta zortzik euskaraz ikasteko ikastaroren batean parte hartzea eskatu dute hurrengo urte judizialerako; epaileen %37ak, hain zuzen ere (guztira ehun eta laurogei epaile baitaude EAEn).

laz berrogei eta hamasei epailek hartu zuten parte euskara ikasteko ikastaroetan, eta duela bi urte, berriz, hogeiei eta hamalauk.

Idazkari judizialen aldetik, berriz, berrogei eta hamabi lagunek egin dute euskara ikasteko eskaera (kolektibo honen %34ak). Fiskalei dagokienez, hamazazpik; hau da, %24ak.

Administrazioako langiletarik, azkenik, seiehun eta berrogeita hemeretzi eskari egin dira, horietatik bostehun eta laurogei dagoeneko onartu egin direlarik, zerbitzu publiko honetako gutxieneko hizkuntza eskakizunak betetzeko moduan.

Hizkuntzaren gaineko auziak

Auzitegi Gorenak gaitzetsi egin du udalak euskara hutsez aritzearen erabakia

Auzitegi Goreneko gatazka administratiboen aretoak maiatzean emandako epaiak bertan behera utzi du Aizarnazabalgo Udalak eman zuen ordenantza. Azken honek zera finkatzen zuen, besteak beste: herri honetako

hizkuntza ofizial bakarra euskara izatea, Udaleko Administrazioako kargu guztiek euskaraz aritu behar izatea, Udaleko barne jardueretatik euskara ez den beste edozein hizkuntza kanporatzea, eta kontratazioari lotutako agiri guztiak euskaraz idatzi beharra.

Auzitegi Gorenaren epaiak Konstituzioaren aurkakotzat jo ditu Aizarnazabalgo Udalak hartutako erabaki horiek, hizkuntzen koofizialtasuna urratzen baitute, eta, ondorioz, baita gaztelerazko hiztunen eskubideak ere. Epai honekin, bertan behera gelditzen da 1992an EAEko Justizia Auzitegi Gorenak Ordenantza hau onartuz emandako Epaiak.

Konstituzio Auzitegiak katalaneraz idatzitako agiri ofizialen baliozkotasun osoa aintzatetsi du

Konstituzio Auzitegiak apirilaren 6an emandako Epaiaren bidez adierazi du katalaneraz idatzitako agiri ofizialek baliozkotasun osoa dutela hizkuntza hori ofiziala den lurraldeetan (hau da, Katalunian, Valentzian eta Balear Uharteetan), itzulpen beharrik gabe.

Epai honek, Gaztela eta Leongo Junta eta Kataluniako Generalitateak 30/1992 Legearen aurka ipinitako helegitean du jatorria, bertan esaten baita “edozein kasutan, gaztelerara itzuli behar dira ondorioak erkidego autonomotik kanpo eduki behar dituzten agiriak”. Nolanahi ere, Auzitegiaren esanetan, “agiri guztiak gazteleratzera behartzeak (...), ondorioak eduki behar dituzten lurraldean agiriak idatzita dauden hizkuntza halaber ofiziala den kasuan ere, bere izaera ofizialari muzin egitea suposatzen du”.

Beste

Eusko Jaurlaritzaren eta Kontseiluaren arteko elkarlana

Martxoaren 9an, elkarlanerako hitzarmena sinatu zuten Gasteizen Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailordetzak eta Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak. Besteak beste, eta helburu nagusien artean, datozen hamar urteotan belaunaldi berriek euskara atsegin eta baliozkotzat hartzea egongo litzateke, gizartearen arlo guztietan bere lekua izanik.

Hitzarmenaren eraginkortasuna ziurtatzeko, Jarraipen Batzorde baten eraketa ere aurreikusi da, gutxienez urtean bitan bilduko litzatekeena.

“Rovira i Virgili” Unibertsitatean, katalanez

Tarragonako “Rovira i Virgili” Unibertsitateak urtarrilaren 21ean onartutako araudiaren arabera, bertako hizkuntza ofizial eta eksklusibo bakarra katalana izango da, eta irakasleek nahiz langileek maila egokia izan beharko dute ahozko nahiz idatzizko erabileran. Plaza berri bat eskuratu nahi duten irakasleek bi urteko epea izango dute aipatutako maila egiaztatzeko, eta irakasle ez direnek, aldiz, hiru urtekoa.

Katalana erabili beharko dute, bada, barne zerbitzuek jendearekiko harremanetan, korrespondentzietan, eta beste unibertsitateekin egindako hitzarmen eta kontratuetan. Irakasleek, oster, ez dute beren klaseak katalanez emateko obligaziorik.

Deustuko Unibertsitatearen eta Aginte Judizialaren Kontseilu Orokorren arteko lankidetzak akordioa

Deustuko Unibertsitateak lankidetzak akordio bat sinatu berri du ekainaren 21ean Aginte Judizialaren Kontseilu Orokorrekin, batetik epaile eta magistratuak trebatzeko, eta bestetik gizarte ordenean horiei bideraturiko trebakuntza sistema bat sortzeko.

Ondorioz, Unibertsitate honetako Ikasketa Soziolaboralen Institutuak zikloak, ikastaroak, mintegiak, hitzaldiak eta mahainguruak antolatuko ditu Zuzenbide Publikoko arlo zehatzei buruz, eta Aginte Judizialaren Kontseilu Orokorren Zuzenbideko 5. mailako ikasleen praktikak bideratuko ditu.

Bibliografia

Monografiak


ANTXUSTEGI, E., *Filosofia politikorako irakurketak*, EHU, Leioa, 1998, 152 or.

“Liburu honetan Filosofia Politikoaz aritzeko erabili dudan metodologia oso garbia da: testuak beraiek dira nagusi. Funtsezko kontzeptu bati buruz ari den autore baten testu bat hautatu dut, horrek bai autorea eta bai kontzeptua aztertzeko bidea ematen digulako. Aukeratu ditudan egile guztiak XIX-XX.

mendeetako testu klasikoetat jo daitezkeenak dira. Gisa honetako lehenengo euskarazko testua denez, hain zuzen ere, autore, testu eta kontzepturik premiazkoenak tratatu nahi izan ditut (...).”

ERRIONDO, L., GARAGORRI, X., ISASI, X., *Hezkuntzaren Normalkuntza*, UEU, Bilbo, 1998, 297 or.

“*Hezkuntzaren Normalkuntza* izenburupean argitaratutako liburu honetara, azken urteotan landutako elkarren osagarriak diren ikerketen emaitzak ekarri nahi ditugu, *elebitasun/elebiduntasuna* (hizkuntza prestasuna) eta *euskal curriculumaren* arazoak hezkuntzaren normalkuntza bidean maila teorikoan zein praktikokoan jorratzeko baliogarria izango delakoan. (...) Liburuaren edukari dagokionez, hezkuntzaren esparru zabalean, kezka diren zenbait problema aztertu eta erantzunbideak aurkitzen saiatu gara. (...) Liburu bost atal nagusitan banatuta dago: *Kultura eta Curriculum, Ikasmateriala eta Euskal Curriculum, Testuliburuaren Azterketa, Normalkuntza, zenbait kontzeptu eta Hizkuntza-Prestasuna Lexikometria*.



EUSKO JAURLARITZA,
Euskal Autonomia Erkidegoko Unibertsitatea Antolatzeari buruzko Legea, Eusko Jaurlaritzak, Gasteiz, 1998, 116 or.




HERRI ARDURALARITZAREN EUSKAL ERAKUNDEA, *Herri Administrazioaren Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legea*, HAAE, Gasteiz, 1999, 425 or.

HERRI ARDURALARITZAREN EUSKAL ERAKUNDEA, *Administrazio eta Prozedura Legea (30/1992) eta inprimaki-ereduak*, HAAE, Gasteiz, 1999, 3030 or.

Administrazioetan aski erabilia den 30/1992 Legearekin batera, berari dagozkion inprimaki-eredurik erabilienak ere plazaratu ditu HAAEK, helburu bikoitz bati jarraituz: administrazioarako lanabes praktikoa eskaintzea, eta euskarazko administrazio-hizkera argia eta kalitatezkoa bultzatzea.




SETIEN DIAZ DE DURANA, A., *Hizkuntz Eskakizunak Bizkaiko Toki Administrazioan II. Errepublikara*, HAAE, Oñati, 1999, 199 or.




Hizkuntza eskakizunen historia pixka bat egiten du liburuxka honetan Arantxa Setienek, horretarako kokalekutatuz Bizkaiko toki administrazioak hartuz, eta garaitzat II. Errepublikako denboraldia. Informazio hau guztia biltzeko, orduko Aldizkari Ofizialetan oinarritu da batik bat.

ZUBIMENDI, J.R., *Udal-agiriak*, HAEE, Gasteiz, 1999, 237 or.

Joxe Ramon Zubimendik Euskal Herriko udaletxeetan gehien erabiltzen diren 80 agirien ereduak bildu ditu liburu honetan, herritarrek lege, agindu eta gainerako agiri guztiak erraz, zuzen eta egoki uler ditzaten. Izan ere, idazki bateratuak erabili beharrean, oso inprimaki desberdinak erabiltzen dira oraindik, eta HAEEK administrazioako agiriak normalizatzeko aurrerapauso bat eman nahi izan du honen bidez.



Hiztegia



Z.A., *Lan Zuzenbideko Hiztegia*, HAEE, EHU, Bilbo, 1999, 204 or.

Espezialitateko hiztegien artean koka dezakegun hiztegi elebidun honek (gaztelania-euskara/euskara-gaztelania) mila eta ehun terminotik gora biltzen du. Irakaskuntza eta administrazioa begira sortu dute batik bat, lexikoaren aldetiko sakabanatzeari aurre egiteko.

Tesien txokoa*

AIZEGA ZUBILLAGA, Joxe Mari: *Estrafiskalitatea eta Zerga Justiziako printzipioak.* D: ZPu. F: ZF. U: EHU. Ur: 1999. Z: Ernesto Lejeune Valcárcel.

ALBERTÍ BAUZÁ, Fernando: *Egozgarritasun penaleko inguruabar aldarazleak CIC 17 eta CIC 83an.* U: NU. Ur: 1998. Z: Ángel Marzoa Rodríguez.

ALONSO RODRIGO, Eva: *Baltzu Kooperatiboa zergadun bezala. Bere eraentza fiskalaren justifikazioari aipamen berezia.* F: ZF. U: DU. Ur: 1998. Z: José M^a Merino Antigüedad.

ARZOZ SANTISTEBAN, Xabier: *Ekintza administratibo komunitarioaren kontzeptua eta eraentza juridikoa.* D: ZKo. F: ZF. U: EHU. Ur: 1998. Z: Iñaki Lasagabaster Herrarte.

BLANCHE, Jacqueline: *Errugabetasun presuntzioa: egiaren eta erruduntasunaren artean. Frantses eta ingeles sistemetako prozedura penalaren eta Giza Eskubideen Europar Hitzarmenaren arteko konparaketa^V.* U: PU. Ur: 1998. Z: Robert Cario.

BOZA PUERTA, Luis Pablo: *Graziano eta Zuzenbide Kanonikoa: "auctoritates"-en sistemetatik zuzenbide jakintsu batera.* D: ZK. U: NU. Ur: 1998. Z: Eloy Tejero Tejero.

CARPIO SARDÓN, Luis Andrés: *Elizaren legegintza Perun.* D: ZK. U: NU. Ur: 1998. Z: Jorge De Otaduy.

CERE, Jean-Paul: *Gatazka diziplinarioa presondegi frantsesetan zuzenbide europarraren pean^V.* U: PU. Ur: 1998. Z: Robert Cario.

CERVERA SOTO, Teresa: *Senar-emazteen maitasunaren eta ezkontzaren arteko erlazioa gaur egungo doktrina kanonikoan.* D: ZZ. F: ZF. U: NU. Ur: 1998. Z: Pedro Juan Viladrich Bataller; Juan Ignacio Bañares Parera.

CUISON, Paul: *Ezkontza: misterioa eta zeinua. Juan Pablo II.aren maisutza.* D: ZK. U: NU. Ur: 1998. Z: Eloy Tejero Tejero.

DEL RÍO MULAS, Consuelo: *Pertsona juridikoaren "estalkia altxatzea"-ren doktrina jurisprudentzia espainiarrean.* F: ZF. U: DU. Ur: 1998. Z: Ricardo de Angel Yagüez.

DEOP MADINABEITIA, Xabier: *Gutxiengo nazionalen babesaren Europar Kontseiluan.* U: EHU. Ur: 1999. Z: Santiago Petschen Verdaguer.

FERNÁNDEZ GÓMEZ, Jorge Diego: *Subsidiariedade printzipioaren berehalako etorkizuna europar gizarte politikan.* F: ZF. U: DU. Ur: 1998. Z: Manuel M^a Zorrilla Ruiz.

FLORES-SAIFFE GARÍ, Mario: *Irrati eta telebistaren eskurapena Espainian eta Mexikon: faktore erlijiosoaren espresioaren eremua.* D: ZK. U: NU. Ur: 1998. Z: Jorge De Otaduy Guerin.

GARCÍA CAVERO, Percy: *Enpresako egitatezko administratzailearen erantzukizun penala: irizpideak eta egozpena.* D: ZP. F: ZF. U: NU. Ur: 1998. Z: Jesús M^a Silva Sánchez.

GARROTE BERNABÉ, Luis Javier: *Gotzainaren jurisdikzio ahalmenaren existentzia eta egikaritzea lehen zazpi mendeetan.* D: ZK. U: NU. Ur: 1997. Z: Eloy Tejero Tejero.

* Euskal Herriko unibertsitateetan (Euskal Herriko Unibertsitatea, Nafarroako Unibertsitatea, Nafarroako Unibertsitate Publikoa, Deustuko Unibertsitatea eta Pauko Unibertsitatea) 1999ko apirilaren 30era arte defendatutako Zuzenbideko Doktorego Tesien zerrenda.

Laburduren zerrenda:

D: Departamentua
F: Fakultatea
U: Unibertsitatea
Ur: Urtea
Z: Zuzendaria

Departamentuak:

FZ: Finantza Zuzenbidea
LZ: Lan Zuzenbidea
MK: Merkataritza Zuzenbidea
NZP: Nazioarteko Zuzenbide Publikoa
NZPr: Nazioarteko Zuzenbide Pribatua
ZA: Zuzenbide Administratiboa
ZF: Zuzenbidearen Filosofia
ZH: Zuzenbidearen Historia

ZK: Zuzenbide Kanonikoa
ZKo: Zuzenbide Konstituzionala
ZP: Zuzenbide Penala
ZPr: Zuzenbide Prozesala
ZPri: Zuzenbide Pribatua
ZPu: Zuzenbide Publikoa
ZZ: Zuzenbide Zibila

GUTIÉRREZ DE CABIEDES HIDALGO DE CAVIEDES, Pablo: *Norbanazgaidiko interesen babes juridikozionala (kolektiboak eta lausotuak).* D: ZPr. F: ZF. U: NU. Ur: 1998. Z: Faustino Cordón Moreno.

HERNÁNDEZ RODRÍGUEZ, Aurora: *"Giltza eskuan" nazioarteko eraikitze kontratuak.* D: NZPr. F: ZF. U: NU. Ur: 1998. Z: Alfonso Luis Calvo Caravaca.

IÑIGO CORROZA, M^a Elena: *Produktuen erabilera eta kontsumoan ondorio kaltegarriengatik erantzukizun penala. Egozpen irizpideak..* D: ZP. F: ZF. U: NU. Ur: 1998. Z: Jesús M^a Silva Sánchez.

JAUSET CLIVILLÉ, Francisco Javier: *Pertsona juridikoaren autonomia eta dependentzia bere ondasunen administrazioan. II. CVtik 1983ko kodifikaziora.* U: NU. Ur: 1998. Z: José Antonio Fuentes Alonso.

LANDA GOROSTIZA, Jon Mirena: *Interbentzio penala xenofobiaren aurrean (Problematika orokorra, "probokatze delitua"-ri aipamen berezia eginez).* D: ZP. F: ZF. U: EHU. Ur: 1998. Z: Adela Asúa Batarrita.

MUÑOZ CORDÓN, Susana: *Giza eskubideen babes sistemen baterako existentzia Europan.* D: ZPu. F: ZF. U: NUP. Ur: 1998. Z: José Antonio Corriente Córdoba.

NÚÑEZ GONZÁLEZ, Gerardo: *Fedearen Doktrinaren Kongregazioari dagozkion penitentziaren ospakizunear egindako delituak.* D: ZK. U: NU. Ur: 1998. Z: Rafael Rodríguez Ocaña.

PLAZA VÁZQUEZ, Amancio Luis: *"Balio erreala" eta "merkatuko balio normala" Tributuz Zuzenbidean.* D: FZ. F: ZF. U: NU. Ur: 1998. Z: Eugenio Simón Acosta.

RABILLER, Stéphanie: *Prentsa askatasunaren murrizketa administrazioak exigentzia konstituzional eta europarren aurrean.* U: PU. Ur: 1998. Z: Pierre Bon.

RODRÍGUEZ PERALES, Oscar Antonio: *Hezkuntza eskubideak Mexikon: 1993ko Konstituzio erreforma eta erregelamendu legea.* D: ZK. U: NU. Ur: 1998. Z: Jorge De Otaduy Guerin.

RUIZ VIEYTEZ, Eduardo Javier: *Atzerritarren estatusa ordenamendu juridiko espainiarrean.* F: ZF. U: DU. Ur: 1998. Z: Jaime Oraá Oraá.

RYGULA, Piotr: *Ezkontzaren sakramentutasuna autore poloniarren arabera, 1917az geroztik.* D: ZK. U: NU. Ur: 1998. Z: Eloy Tejero Tejero.

SAN MARTÍN SÁNCHEZ DE MUNIÁIN, Laura: *Merkataritzako sistema aldeaniztuna eta ingurugiroaren nazioarteko babesa: alderdi juridikoak.* D: NZP. F: ZF. U: NU. Ur: 1998. Z: Romualdo Bermejo García.

SANCIÑENA ASURMENDI, Camino: *Ezkondutako pertsonen egikaritutako merkataritza.* U: NU. Ur: 1997. Z: Jorge Miras Pouso.

SEGALÉS FIDALGO, Jaime: *Informazioko profesionalaren konzientzia klausula, lan harreman bateko subjektu gisa.* D: LZ. U: EHU. Ur: 1999. Z: Juan Pablo Landa Zapirain.

SIERRA HERNAIZ, Elisa: *Laneko lehenetsunezko trataerak: ekintza positiboa.* D: ZPri. F: ZF. U: NUP. Ur: 1998. Z: Juan García Blasco.

SWIACZNY, Seweryn: *Loturaren desegitea bataiatu gabekoen ezkontzan: pontifize ahalmenaren egikaritza.* D: ZK. U: UN. Ur: 1998. Z: Juan Ignacio Bañares Parera.

UGARTEMENDIA ECEIZABARRENA, Juan Ignacio: *Desobedientzia zibila Estatu Konstituzional Demokratikoan.* D: ZKo. F: ZF. U: EHU. Ur: 1998. Z: Gurutz Jáuregui Bereciartu.

URRAZA ABAD, Jesús: *Delitu ekologikoa Ordenamendu Juridiko espainiarrean sartzearen prozesua: azterketa proposamena.* F: ZF. U: DU. Ur: 1998. Z: Wenceslao Díez Argal.

VIÑUELA HOJAS, Mauricio Francisco: *Ingurugiroaren gaineko eragina eta enpresa askatasuna.* D: ZA. F: ZF. U: UN. Ur: 1998. Z: Francisco González Navarro.

Fakultateak:

FF: Filologia Fakultatea
ZF: Zuzenbide Fakultatea

Unibertsitateak:

DU: Deustuko Unibertsitatea
EHU: Euskal Herriko Unibertsitatea
NU: Nafarroako Unibertsitatea
NUP: Nafarroako Unibertsitate Publikoa
PU: Pau-ko Unibertsitatea

∇ Ikurtxo hau daramaten tesiak frantsesez aurkeztu dira.

BERRIAK. Eleria. 4, 1999, 75-83

Bidean dauden Legeak*

1. Eusko Legebiltzarra

1.1. Lege proposamenak

Arauaren izena	Sarrera eguna	Proposatzailea	Argitalpena
Drogamenpekotasunaren arloko Aurrezaintza, Laguntza eta Gizarteratzeari buruzko 18/1998 Legea aldatzekoa	99.02.16	Euskal Talde Popularra	14/942 99.02.19
Legegintzarako Herri Arioari buruzko ekainaren 26ko 8/1986 Legea aldatzeko	99.04.26	Misto-Ezker Batua/Berdeak	24/2008 99.04.30
35 orduko lan-astea ezartzen eta lanaldia banatzen laguntzeko neurri publikoei buruzkoa	99.05.04	Euskal Sozialistak	25/2071 99.05.07
Euskal Irrati Telebista Sortzeko 5/1982 Legea aldatzekoa	99.05.10	Euskal Talde Popularra	26/2149 99.05.14
Euskal Poliziari buruzko uztailaren 17ko 4/1992 Legea aldatzekoa	99.05.20	Euskal Sozialistak	27/2256 99.05.21

1.2. Herri ekimenezko Lege proposamenak

Arauaren izena	Sarrera eguna	Proposatzailea	Argitalpena
Gizarte Eskubideen Agiritarakoa	96.12.20	Longarte Fdez. de Gamarra J.L. eta beste batzuk	146/12485 97.12.31

* OHARRA: Irakurle, lege proiektu hauek 1999ko ekainaren 21ean zeuden egoeran agertzen dira tauletan. Litekeena da aldizkariaren argitarapenera bitarteko denboran horietakoren bat lege bihurtu izana.

ITURRIAK: Eusko Legebiltzarreko eta Nafarroako Parlamentuko mahaiak.

BERRIAK. Eleria. 4, 1999, 75-83



2. Nafarroako Parlamentua

2.1. Foru Lege Proiektuak

Arauaren izena	Sarrera eguna	Argitalpena	Espediente zkia.
TVEren Nafarroako Zentruko Programazio Lurraldetarraren Handiagotzea Finantzatzeko 125.000.000 ptako Ezohiko Kreditua Emateari buruzkoa	98.3.30	98.4.14	Lege -4/98
Nafarroko Kontseiluaren Erregulazioari buruzkoa	98.4.20	98.5.6	Lege -5/98
Nafarroako Merkataritza eta Industria Ganbarari buruzkoa	98.4.24	98.5.11	Lege -6/98
Eremu Lokaleko Jarduera Ekonomikoen Poligonoen Proposamenari Laguntzak Emateko otsailaren 27ko 2/1997 Foru Legea Aldatzekoa	98.4.29	98.5.14	Lege -7/98
Batxillergoko Lehen Kurtsoa, Maila Ertaineko Trebakuntza Zikloak eta Gizarte Bermeko Programak Ematen Dituzten Gizarte Ekimeneko Zentruen Finantzazio Publikoa Arautzekoa	98.5.18	98.5.27	Lege -8/98

2.2. Foru Lege Proposamenak

Arauaren izena	Sarrera eguna	Proposatzailea	Espedientea
Vascuencearen abenduaren 15eko 18/1986ko Foru Legea Aldatzekoa	98.4.28	"Convergencia de Demócratas de Navarra"	Pro-9/98
Ogasun Lokalei buruzko 2/1995 Foru Legeko 155. Artikulua Aldatzekoa	98.5.21	SPN, CDN eta IU-EB	Pro-10/98
Lurraldearen Antolakuntza eta Hirigintzari buruzko 10/1994 Foru Legea Aldatzekoa	98.6.11	Ezker Abertzalea	Pro-11/98